


1- IRAKURRI TESTUA ARRETAZ.

NAHIAK LIBURUA IRAKURTZEN DU

Nahiak motxila zabaldu du eta liburu polita atera du. Nahia liburua irakurtzen hasi da. Nahiari irakurtzea asko gustatzen zaio.

Shilin Nahiaren ondoan eseri da eta liburua ikusten ari da.

-Oso liburu polita duzu. Marrazkiak eta kolore asko ditu.- esaten dio.



-Bai, eta margozteko da ere. Begira! - erantzuten dio Nahiak.

Nahiak margoak atera ditu eta liburuaren marrazkiak koloreatzen hasi da.

- Nik ere nahi dut bat!- esaten du Shilinek.

- Non eros dezaket liburu hori? - galdetzen dio Shilinek.

- Ez dakit. Niri oparitu didate eta hemen daukat beste liburu bat zuretzat! -dio Nahiak.

Zelako sorpresa !



2- AUKERATU ERANTZUN ZUZENA

1.- Nahia _____ ari da.

2.- Nahiak _____ dauka.

3.- Nahiari _____ gustatzen zaio.

4.- Liburuak _____ ditu.

5.- Nahiak _____ atera ditu.

3- AUKERATU EGIA EDO GEZURRA DEN.

Nahiak liburu berria du.

EGIA	GEZURRA

Nahiari dantza egitea gustatzen zaio.

Liburua Shilinena da.

Nahiak Shilini goxokia ematen dio.

4.- ESALDIAK OSATU.

1.-Nahiari _____ gustatzen zaio.

2.- Shilinek _____ nahi du.